

## **EUSKARAREN KALITATEA: ZUZENTASUNA ETA EGOKITASUNA**

*Oñati/Arantzazu, 1997-III-14  
Joxe Ramon Zubimendi,  
Jagon batzordekidea*

Agur, batzordekideok! Txostenaren sarrera gisa, Jagon sailaren egitasmoa (Euskaltzaindiak onartua) hitz gutxitan bildu eta laburpen-eskema bat prestatu dizuet. Asmatuko ahal nuen!

### **JAGON SAILAREN ARDURAPEKO HIRU EGINKIZUNAK**

1. Euskararen erabilera bermatu eta zabaltzen saiatu [*status*, kantitatea].
2. Euskararen erabilera zuzena eta egokia eragin [*corpus*, kalitatea].
  - 2.1. Komunikabideetan.
  - 2.2. Irakaskuntzan.
  - 2.3. Kalean (bide-seinaleak, toki-izenak, denda-iragarkiak eta abar).
  - 2.4. Administraziooko idazki ofizialetan.
3. Iker sailaren lana plazaratu.

Ez dut esan nahi Jagon sailak berak egin behar dituenik lan horiek guztiak; baizik eta beroien eragile, bultzatzaile, zirikatzaile, begirale, gidari... izan behar duela. Alegia, zuzendu, bai; kudeatu, ez.

Lehen eginkizuna (*status*) betetzeko lankideak:

1.a) Erakunde ofizialak: EAEko Hizkuntza Politikarako Sailordetza, Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza, HAEE/IVAP, EUDEL, UEMA eta abarretako Euskara Zerbitzuak...

1.b) Ekimen pribatuak: EKB, Bagera elkarteak eta gisa berekoak, Arrasate Euskaldundu Dezagun (AED)...

Horiekin guztiekin elkarlanean jarduteko bideak asmatu behar dira.

Bigarren eginkizuna (*corpus*) betetzeko jarduerak:

2.a) Irizpide nagusiak finkatu.

- Zuentasunari dagokionez, oinarrizko arauak eta gormendioak.
- Egokitasunari dagokionez... [zehaztu gabe dago].

2.b) Euskalgintzako lantaldeak koordinatu, alorrez alor, irizpideak bateratuz.

2.c) Erabilera okerrei aurrea hartu (ahal izatera), agintarien laguntzaz.

Hirugarren eginkizuna, Iker sailaren lana plazaratzeko baliabideak:

3.a) Ikastaroak eta argitalpenak.

3.b) Besterik [zehaztu gabe dago].

Hirugarren eginkizuna, bistan denez, bigarrenarekin lotu-lotuta dago.

\* \* \*

Horra hor, okerrik ezean, labur-labur adierazita gure Jagon sailaren ardurapeko hiru eginkizunak. Konturatuko zineten noski, bi aldiz ageri dela “zehaztu gabe dago” delako oharra: hain zuzen ere, “2.a” delako azpisailean eta “3.b” delakoan.

Zehazteko dauden bi horietako bat, “3.b” delakoa, Iker sailaren lanak plazaratzeko baliabideei dagokio, eta aurreko bileran hasi ginen aztertzen (Donostian, 1997ko otsailaren 21ean).

Bestea da, “2.a” delakoa da, izan ere, gaurko bilera honetan zehazten hasi behar duguna, eta asmo horrekin idatziak dira bai egungo txostentxo hau, bai zuen eskumenean jarri dudana *Jokaera-liburua*, eta bai Pello Esnalek eta biok ondu genuen *Idazkera-liburua* (ezin eskuratuko dizuet liburu hori; aspaldi agortu baitzen bigarren argitalpena ere).

Has nadin, bada, oinarrizko xehetasunak azaltzen, ahalegina.

## EUSKARA ZUZENA ETA EUSKARA EGOKIA

Hasteko, bereizketa formal bat erabaki behar dugu: euskara zuzena eta euskara egokia bereizi behar ditugu. Badakit bien arteko muga ez dela nabari batzuetan; are gehiago, badakit mugarik ere ez dagoela beste batzuetan: alegia, euskara zuzena eta euskara egokia biak bat direla zenbait kasutan. Hala behar luke beti; baina badakit gramatikazko zuentasunak ez dakarrela beti berarekin

egokitasuna, eta horregatik bereizi behar ditugu: euskalgintzan ari garenon lanerako tresna izateko.

Bereizketa hori nola ikusten dudan azalduko dizuet, labur-labur.

## Euskara zuzena

Euskararen kalitateak bi zutabe nagusi ditu: zuzentasuna eta egokitasuna.

Zer da euskara zuzena? Euskal gramatikaren arabera mintzaira.

Nolakoa da euskara zuzena? Euskararen beraren barne-arauen moldekoa, hizkuntzaren arlo guztietan: ahoskeran, joskeran, hiztegian, ortografian...

Zein da euskara zuzena? Euskaltzaindiari bakarrik dagokionez euskarari buruzko arauak ematea, bat bakarra da euskara zuzena: Euskaltzaindiaren arauen arabera.

Zuzentasuna, beraz, zurruna da, zehatza, oinarrizkoa, ororentzako eta derigorrezkoa, nahitaez. Eredu bakar hori sendo finkatu izana dugu batasunaren emaitzarik behinena eta euskararen etorkizunaren giltzarria. Urrats nagusi hori egina dugu gehienbat, eta ez dugu atzerakorik behar; ezta zirkinik ere!

Zuzentasuna, ordea, ez da nahikoa; testu batzuk ulergaitzak baitira, izan ere, guztiz zuzenak izan arren. Horixe da euskara gordinaren ezaugarria: zuzena da, baina nekez ulertzen da. Eta hauxe da euskara gordinaren emaitza: inkomunikazioa. Horra, euskara batuaren etsairik kaltegarriena; izan ere, zertarako balio du hizkuntzak, baldin eta (ulergaitza den heinean) komunikatzeko balio ez badu?

Zuzentasunak, hortaz, laguna behar du osagarri: egokitasuna.

## Euskara egokia

Euskara egokia zer den azaldu aurretik, “egoki” hitzaren adiera edota esanahia gogorazi nahi dizuet:

**egoki** (izenondoa, 1591). Helburuari dagokiona, aukeran datorrena, nahi edo behar denaren arabera [Ibon Sarasola, *Euskal Hiztegia*].

Ederki adierazia dago, bai horixe! Azalpen horren hiru zatiez baliatuko naiz, hurrenez hurren, euskara egokiaren berri ematen hasteko.

1. Helburuari dagokiona da euskara egokia: zuzena izateaz gain, argi eta garbi ulertzen dena, komunikazioa errazten duena, lehenengoan aditzeko modukoa. Izan ere, mezu-hartzaileak aukera bakarra izaten baitu (gehienetan) mezua aditzeko; eta mezua “hartu” ezean, ez dago komunikaziorik.

2. Aukeran datorrena da euskara egokia: batetik, une egokian datorrena, euskara zuzena (kanona) sendo finkatu ondoren; bestetik, era egokian datorrena

hautagaiak elkarrekin uztartzera (idatzia eta ahozkoa, klasikoak eta herri-literatura, batua eta euskalkiak, gramatika eta pragmatika, begia eta belarria...).

3. Nahi eta behar denaren araberakoa da euskara egokia: norberaren etxe-ko eta herriko hizkera ere —“ere” diot— atxiki nahi duenaren araberakoa, euskalgintzako profesionalek (irakasle, kazetari eta abarrek) behar dutenaren araberakoa, komunikaziorako teknologia berriek ezarri(ko) duten erdi-ahozkotasunak nahitaez behar duenaren araberakoa.

### **Zuzenaz gain, egokia**

Zurruna —zuzenagatik— izateaz gain, malgua da euskara egokia: mailaz mailako errejistroak eta lekuan lekuko berezitasunak onartu eta bideratzeko bezain malgua; baina txokokeria nahasgarriak gaitzetsi eta zapuzteko bezain zurruna.

Bakarra —zuzenagatik— izateaz gain, anitza da euskara egokia; funtsezko batasunak ez baitu galarazi behar aniztasun oparoa (errejistro, berezitasun eta estilo ezberdinen emankortasuna).

Zehatza —zuzenagatik— izateaz gain, iradokizun-eragile ere izan daiteke euskara egokia: esaterako, literaturan. Poesian badira pasarte ilunak, hala nahi, nahas-mahas adierazitakoak: horiek egokiak dira beren horretan. Horrelakoak argi eta garbi itzultzea, adibidez, oso desegokia da; ez baita “nahi edo behar denaren araberakoa”.

### **Egokia ez da erraza**

Argibide nagusi bat, amaitzeko. Euskara egokia ulerterraza da; baina euskara ulerterraza ez da egiten erraza. Euskara ulerterraza argia da, eta oso landua izan ohi da. Euskara erraza, aldiz, oso pobrea izan daiteke. Hortaz, ez nahastu bata bestearekin.

## **JAGON SAILA ETA EGOKITASUNA**

Nola jokatu behar du Euskaltzaindiak egokitasunaren alorrean? Txosten honen hasieran dugu erantzuna, Jagon sailaren bigarren eginkizuna betetzeko jarduerak delakoaren b) azalpenean: “euskalgintzako lantaldeak koordinatuz, alorrez alor eta irizpideak bateratuz”.

Oinarrizko jokaera ere lehen adierazi dut: “zuzendu, bai; kudeatu, ez”.

Esango nuke, hortaz, honen guztionen jakitun jarri behar ditugula euskalgintzako lankideak. Zuzentasunaz arduratzeaz gain, egokitasunaz ere ardura bitez, langintzaka eta eskualdeka antolatuz: denon artean aurkitu eta ibili be-

harreko bidea baitugu hau, denon artean egin beharreko batasunaren bigarren urrats nagusia.

## EGA-TIK GORAKO TITULUA

Honako beste gai hauxe ere aztertzen hasi behar genukeela uste dut: EGA-tik gorako titulua. Ni neu ez naiz tituluzalea; baina jende asko ari omen da horrexen eske, eta administrazioan ere zerbaiten beharrean omen dira.

Orain artean adierazi dizuedanaren hari berekoa da nire proposamena:

— Euskarazko Gaitasun Agiria, EGA delako titulua, zuzentasunaren alorreko gaitasun-agiritzat hartu eta dagoen-dagoenean utziko nuke, ezertxo ere aldatu gabe.

— EGOKI edo izeneko titulu berria sortuko nuke egokitasunaren alorreko gaitasun-agiritzat. (Titulu hori akronimo bat da: Euskarazko Gaitasun Onarpena Komunikaziorako\* eta Irakaskuntzarako\*\*).

\* “Komunikaziorako” delakoaren barnean honakook sartuko nituzke:

- Kazetariak (eta erakundeetako berri-emaileak).
- Itzultzaileak (alor berezietakoak izan ezik).
- Funtzionarioak (4. edota 5. Hizkuntza Eskakizuna).
- Publizistak (eta erakundeetako iragarkigileak).

\*\* “Irakaskuntzarako” delakoa euskaraz diharduten irakasle guztiei(?) dagokie, eta aztertu egin beharko da, besteak beste, zenbateraino ezagutarazi irakasleei lekuan lekuko euskalkia.

— EGA titulurik gabe ez legoke EGOKI titulurik ere; euskara zuzenik gabe euskara egokirik ez dagoen bezalaxe.